



Mano de obra • Mexiko

David Zonana (zuzendaria, gidoilaria, ekoizlea)
Hugo Mendoza (aktorea)
Michel Franco (ekoizlea)

Mexikar gizartearen isla eremu txiki batera eramana

SERGIO BASURKO

David Zonana zinemagilearen lehen film luzeak neurri zko iraupena du kontratu nahi duen metaforarentzat. Etxejabe aberats baten luxuzko etxebitzitza eraikitzeko obran ari den gazte baten bizitza gainbehera joaten hasiko da berarekin batera lanean ari den anaia lan-istripu batean hiltzen denean; hori gutxi balitz, haurdun dagoen koinanta kalte-ordinan ekonomikorik gabe utziko dute. Gaztearen eta lankideen aurka abusu berriak jasan ondoren, eta dagokiena hainbatetan eskatu ondoren, bere esku hartuko du justizia, eta eraikitzen ari zen etxetzarera bizitzera joango da. Baino, aurka egin nahi dion munduak irentsiko al du azkanean?

"Bada, ba bai –erantzun digu zuzendariak–; jakina da Mexikon ohikoa dela ustelkeria gizarteko estamentu gorennetan, baina gauza bera gertatzen da klase txiroenetan ere; askoz neurri txikiago batean, hori bai.



David Zonana zuzendari
berria Hugo Mendoza
aktore-igeltseroarekin.

GARI GARAIALDE

Okupatutako etxea kolektibizatzen denean ukitzen du pelikulak benetako mamia: protagonistarekin lan egiten zuten gainontzeko lagunak ere gonbidatuko ditu eta etxearen jabe egiteko proiektuan murgilduko

dira, baita arazoz beteriko elkarbizitza batean ere.

Klaserik gabeko mikro-gizarte bat eraikitzeak dauzkan zaitasun eta kontraesanak erakusten ditu filmak; finean, zapaldutako pertsonek

A microcosm of moral corruption

In his debut film *Workforce* which is competing in the Official Selection, the Mexican director and scriptwriter David Zonana shows how a construction worker takes justice into his own hands after his brother dies on the building site where they are working by taking over the house they have built. However, although it seems that they have finally achieved what they have always dreamed of, the atmosphere in the house quickly degenerates

and the corruption and inequality of Mexican society in general re-emerge as the workers merely perpetuate the vices of the upper classes as these have permeated every individual at the very deepest level, regardless of where they are from. The director stressed how the house represented a microcosm of Mexican society, and that it had been really important to use non-professional actors as this gave his film a really authentic feel.

euren kabuz erabakiak hartzeko as-katasuna dutenean, zapaldu dituen logika berdinaz jokatzen dutelako.

"Luis Albertik hezurmamitzen duen pertsonaiak, mikro-gizarte hori eraikitzearekin batera bere burua ahaldundun duenak, ustelkeria individualistan jausten amaituko du. Nola esan, gizartearen kontraesanak eremu txiki batean irudikatzen sainatu naiz. Ez dago inongo gizarterik, txikia izanik ere, perfekziora

funtzionatzen duenik", adierazi du zinemagile mexikarrak.

Izanere, apaltasunean baitatzalan honen xarma. Sekuentzia bakoitzean, funtsezko dena baino ez; esaldi bakoitzean, egia besterik ez. Zeren fikzio honetako aktore gehienak ez baitira profesionalak eta nabari da dialogoen naturaltasunean. "Luis Alberti protagonista izan ezik, gainerako aktoreak eraikuntzako langileak eta horien familiaiak dira", argitu du zuzendariak.



• Zinemaldiko informazio guztia

www.naiz.eus

naiz: